

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

ERRIBERAGOITIKO UDALA

Erriberagoitiko Udalaren dirulaguntzak arautzen dituen udal ordenantzaren behin betiko onespena

Dirulaguntzak arautzen dituen udalaren ordenantzari hasierako onarpena emateko erabakia 2022ko apirilaren 29ko -ostiraleko- ALHAOn -49 zk. argitaratu zen haren aurka ez da inolako erreklamaziorik edo oharrik aurkeztu. Beraz, Toki Ogasunak arautzen dituen Legeak xedatutakoarekin bat etorriz, ordenantza hori behin betiko onetsi da. Hona hemen.

ERRIBERAGOITIKO UDALAREN DIRULAGUNTZAK ARAUTZEN DITUEN ORDENANTZA

HITZAURREA

Erriberagoitiko Udalaren aurrekontuan urtero hainbat partida ekonomiko jasotzen dira, batez ere zenbait jarduera eremutako (aisialdia, kirola, kultura, jaiak, berdintasuna, gazteriaren garapena, gizarte ongizatea, hizkuntza normalizazioa, etab.) erakunde edo herritar elkarteei jarduerak garatzeko edo zerbitzuak emateko dirulaguntzak emateko. Dirulaguntza horien bidez, interes orokorrekotzat jotzen diren gizarte ekimen jakin batzuk sustatu nahi dira, interes publikoko zerbitzu eta jardueren kudeaketan herritarren parte hartzea eta administrazioaren eta herritarren arteko lankidetzak bultzatzeko.

Testuinguru horretan, administrazio jardueraren eremu hori araubide juridiko propio eta espezifiko batez hornitzeko, Estatuan Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorra, 2004ko otsailaren 18an indarrean jarri zena, eta hura garatzen duen uztailaren 21eko 887/2006 Errege Dekretuaren bidez onetsitako Erregelamendua aldarrikatu ziren.

Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren 1. artikulua xedatzen du ezartzen du administrazio publikoek emandako dirulaguntzen araubide juridiko orokorra arautzea, 3.1. artikuluan "toki administrazioa osatzen duten erakundeak" barne hartuta.

Bada, legearen 9. artikulua berak xedatzen duenez, dirulaguntzak eman aurretik, haiek emateko oinarri arautzaileak ezartzen dituzten arauak onetsi beharko dira, legean bertan ezarritakoaren arabera, eta 17. artikuluan gehitzen duenez, dirulaguntzen ordenantza orokor baten bidez horiek arautzea izango da haiek ezartzeko moduetako bat. Legezko betebeharrak horrek eragin du Erriberagoitiko Udalean dirulaguntzak emateko udal ordenantza bat onestea.

ATARIKO TITULUA. DIRULAGUNTZA: KONTZEPTUA, APLIKAZIO EREMUA ETA AURRETIAZKO BALDINTZAK

1. artikulua. Xedea eta aplikazio eremua. Proiektuak garatzeko baldintzak

1. Ordenantza honen xedea Erriberagoitiko Udalak partikularrei, erakundeei eta herritar taldeei dirulaguntzak emateko aplikatu beharreko araubidea eta prozedura arautzea da, Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren 17. artikuluan xedatutakoa betez.

2. Dirulaguntza horiek onura publikoko edo gizarte intereseko jarduerak edo helburu publiko bat sustatzeko proiektuak edo jarduerak egiteko eman ahal izango dira, udal eskumenak osatzeko edo ordeztzeko, deialdi zehatz bakoitzak aplikatu beharreko araubide juridikoa osatzea eragotzi gabe.

3. Deialdietako dirulaguntza lerroak, besteak beste, udalen eskumen eremu hauei buruzkoak izango dira: ongizatea eta gizarteratzea, osasuna, garapenerako lankidetzak, kultura, hezkuntza, hizkuntza normalizazioa, jaiak, gazteria, berdintasuna, etxebizitza, ingurumena, kirola, sustapen ekonomikoa, enplegua eta Erriberagoitiko Udalak toki erakunde gisa susta dezakeen beste edozein.

4. Laguntza emateko, diruz lagundutako jarduerak baldintza hauek osorik bete beharko ditu:

- Ezin izango dute Giza Eskubideen Adierazpen Unibertsalean xedatutakoa urratu.
- Emakumeen eta gizonen arteko berdintasun eraginkorrek konprometituta egongo da, eta berdintasunezko partaidetza aktiboki sustatuko dute.
- Hizkuntza inklusiboa erabiliko du genero zentzuan.
- Ez da baztertzailerik izango sexuagatik, jatorri geografikoagatik, kulturagatik, adinagatik, generoagatik, identitateagatik edo sexu jardunengatik, ezta beste edozein arrazoiengatik ere.
- Ingurumenaren jasagarritasuna sustatuko du, bere garapenaren esparruan.
- Lehentasunez, euskara eta gaztelania erabiliko ditu zabaltzeko eta gauzatzeko, baina beste hizkuntza batzuk ere erabiliko ditu diruz lagundutako proiektuen eremuak hala eskatzen duenean.

2º artikulua. Dirulaguntzen kontzeptua

Udal ordenantza orokor honi dagokionez, dirulaguntzat hartuko dira Erriberagoitiko Udalak pertsona publiko zein pribatuen alde egiten dituen diru erabilera guztiak, hauek betez gero:

a) Dirulaguntza erakunde / pertsona onuradunaren zuzeneko kontraprestaziorik gabe eman behar da.

b) Dirua emateko baldintza bat ezarri behar da, hain zuzen ere dirua proiektu, programa edo jarduera bat gauzatzeko, jarrera bat izateko erabiltzea edo inguruabar jakin bat gertatzea (xede gauzatu zein gauzatzeko egon daiteke). Gainera, pertsona edo erakunde onuradunak deialdian ezarritako betebeharrak formalak eta materialak bete beharko ditu.

c) Finantzaturiko proiektu, ekintza, jarrera edo egoeraren helburu izatea onura publikoko edo gizarte intereseko jarduera bat edo xede publiko bat sustatzea.

3º artikulua. Ordenantza honen aplikazio eremutik kanpo

Ordenantza honen aplikazio eremutik kanpo daude:

a) Pertsona edo erakunde onuradunak eskatu gabe ematen diren sariak edo bekak. Ondorio horietarako, ordenantza honek ez du aintzat hartuko, aldez aurretik eskatuta, sari baten deialdian parte hartze hutsa.

b) Diru ekarpenak, Erriberagoitiko Udalak parte hartzen duen udalerrri elkarten alde egiten dituen kuota arrunten zein ohiz kanpoko kontzeptupean.

c) Toki araubideari buruzko legerian araututako udal talde politikoentzako dirulaguntzak, araudi horretara egokitu beharko direnak.

d) Udalak bere erakunde autonomoei euren eskumeneko jarduerak modu orokorrean finantzatzeko ematen dizkien ekarpenak.

4º artikulua. Dirulaguntzen plan estrategikoa

1. Erriberagoitiko Udalak, Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren 8. artikuluan xedatutakoa betez, dirulaguntzen plan estrategikoa batean zehaztuko ditu dirulaguntza gisa ordenantza honen mende geratzen diren diru ekarpen guztiak.

2. Aurreko paragrafoan aurreikusitako ondorioetarako, Erriberagoitiko Udaleko zerbitzu bakoitzak dirulaguntzen plan estrategikoan zehaztuko ditu dirulaguntza emanez lortu nahi

diren helburuak eta ondorioak, gauzatzeko behar den epea, aurreikus daitezkeen kostuak eta finantzaketa iturriak, betiere aurrekontu egonkortasuneko helburuak betetzearen mende.

3. Dirulaguntzen plan estrategikoa organo eskudunak onetsiko du, indarraldia eta aldatzeko prozedura adierazita.

LEHENENGO TITULUA. PERTSONA EDO ERAKUNDE ONURADUNAK

5º artikulua. Pertsona edo erakunde onuradunak

1. Pertsona edo erakunde onuraduna izango da dirulaguntza emateko oinarri den jarduera egin behar duena edo egin duena, edo dirulaguntza ematea zilegi egiten duen egoeran dagoena.

2. Pertsona juridikoa denean, eta deialdian hala aurreikusten den guztietan, dirulaguntza ematearen oinarri diren jarduera guztiak edo batzuk lehenengoaren izenean edo haren kontura egiteko konpromisoa hartzen duten kide elkartuak ere onuraduntzat hartuko dira.

3. Pertsona edo erakunde onuradun izan ahalko dira pertsona fisikoen edo juridikoen elkarteak, publikoak edo pribatuak, ondasun erkidegoak edo bestelako unitate ekonomiko edo ondare bereziak, baldin eta, nortasun juridikorik izan ez arren, proiektuak, jarduerak edo portaerak gauza baditzakete edo dirulaguntza ematea eragin duen egoeran badaude.

Pertsona fisiko edo juridiko publiko nahiz pribatuen elkarteak direnean, eta nortasunik ez badute, beren-beregi adierazi beharko dira, bai eskabidean bai diru-laguntza emateko ebazpenean, elkartekide bakoitzak bere gain harturiko konpromisoak, eginkizunak betetzeari dagokionez, baita elkartekide bakoitzari aplikatu beharreko diru-laguntzaren zenbatekoa ere, beraiek ere pertsona onuraduntzat hartuko baitira. Edonola ere, elkartearen ordezkari edo ahaldun bakarra izendatu beharko da, elkarteari pertsona onuraduna den neurrian dagozkion betebeharrak betetzeko ahalorde nahikoa izango duena.

Taldea ezin izango da desegin Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorren 39. eta 65. artikuluetan aurreikusitako preskripzio data igaro arte.

6º artikulua. Onuradun edo erakunde laguntzaile gisa baztertzeko arrazoiak

1. Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorrean xedatutakoari kalterik egin gabe, ezingo dira izan Erriberagoitiko Udalak ematen dituen dirulaguntzen onuradun edo erakunde laguntzaile honako egoera hauetakoren batean dauden pertsonak edo erakundeak:

a) Epai irmoaren bidez edo Dirulaguntzei buruzko Lege Orokorra edo Zergei buruzko Lege Orokorra aplikatuz ezarritako zehapena dela eta dirulaguntza eta laguntza publikorik jaso ezin dutenak.

b) Konkurtso adierazpena eskatu dutenak edo konkurtsoan daudenak, prozeduraren batean kaudimengabetzat jotakoak, esku hartze judizialaren menpe daudenak, eta Konkurtso Legearen arabera ezgaituta daudenak, epaian ezarritako ezgaitasunaldia amaitu ez bada.

c) Administrazioarekin egindako edozein kontraturen suntsiarazpen irmoa eragin dutenak, horren kausaren errudun deklaratuak izan badira.

d) Pertsona fisikoa, administratzaileak edo beste pertsona juridiko batzuen legezko ordezkariak izan diren Estatuko Administrazio Orokorren Legean edo Administrazio Publikoen zerbitzuko langileen bateraezintasunei buruzko Legean jasotako kasuren batean egotea, edo Hauteskundearen Araubide Orokorri buruzko Lege Organikoan araututako edozein hautetsi izatea, lege horretan bertan edo gai horiek arautzen dituen araudi autonomikoan ezarritako baldintzetan.

e) Indarreko xedapenek ezarritako zerga betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak egunean ez dituztenak.

f) Arau bidez zerga paradisutzat jotako herrialde edo lurralde batean daukatzenak zerga egoitza.

g) Dirulaguntzak itzultzean bete beharrekoak egunean ez dituztenak, arauz ezarritakoa aintzat hartuta.

h) Entitatea edo pertsona fisikoa zigortua, edo administrazio ebazpen edo epai judizial irmoz kondenatua gertatu izana, soldata diskriminazioagatik, jazarpen moralagatik edo sexuan oinarritutako tratu desberdinengatik, edo Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako otsailaren 18ko 4/2005 Legean, Emakumeen eta Gizonen Berdintasun Eraginkorrerako martxoaren 22ko 3/2007 Lege Organikoan edo gai horretan aplikagarria den araudi autonomikoan ezarritako printzipioak eta betebeharrak urratu izana.

i) 5. artikuluko 3. zenbakian aipatzen diren elkartzeen kasuan, baldin eta kideren batek aurrean azaldutako debekuetako bat badauka ezarrita.

2. Pertsona edo erakunde batek frogatu nahi badu ez zaiola ezarri Udalaren dirulaguntzen onuradun edo erakunde laguntzaile izateko debekurik, administrazio egiaztatzea aurkez dezake edo, bestela, administrazio agintaritzan baten edo notario baten aurrean egiletsitako erantzukizunpeko aitortpena.

7º artikulua. Entitate laguntzaileak

Entitate laguntzailea honako hau izango da: dirulaguntzarekin zerikusia duten ondorio guztietarako organo emailearen izenean eta haren kontura jardunez, pertsona edo erakunde onuradunei funts publikoak eman eta banatzen dizkietena, edo dirulaguntza kudeatzen laguntzen duena, baina jasotako funtsak aldeztatik eman eta banatu gabe. Funtsak inolaz ere ez dira hartuko beraien ondarekotzat.

Entitate laguntzaile izango dira, halaber, Europar Batasuneko araudiari jarraituz pertsona edo erakunde onuradun izendatu, eta aurreko paragrafoan azaldutako eginkizunak soil-soilik ezartzen zaizkien pertsonak.

8º artikulua. Onuradunen betebeharrak

Berariazko deialdiek atal honetan aurreikusi gabeko betebeharrak bereziak ezarri ahal izango dituzten arren, onuradunen betebeharrak orokorrak honako hauek dira:

a) Dirulaguntza emateko aintzat hartutako helburua betetzea, proiektua egitea edo jarduera gauzatzea.

b) Ordenantza honetan ezarritako arauak behar bezala betetzea, bai eta dirulaguntza emateko ebazpenean ezar daitezkeen baldintza bereziak ere.

c) Erriberagoitiko Udalak aurreko deialdietan emandako dirulaguntzak, mota eta esparru guztietakoak, justifikatuta edukitzea.

d) Proiektuaren edo jardueraren antolakuntzak berekin dakartzan erantzukizunak onartzea eta erantzukizunoi aurre egiteko behar diren aseguru polizak sinatzea, diruz lagundutako jarduera garatzeko behar diren baimen guztiak lortzeaz gain.

e) Jarduera eta ikuskizun publikoak antolatzeari dagokionez indarrean dagoen araudia betetzea, bai eta kasuan kasuko jarduketa eremuan aplikatzekoa den estatuko, autonomia erkidegoko, foruko edo tokiko gainerako araudia ere.

f) Ondoren, emandako zenbatekoari emandako enplegua justifikatzea, ordenantza honetan eta deialdietan kasu bakoitzean ezartzen den moduan.

g) Prestatzen diren sustapen elementuetan sartzeari diruz lagunduko diren programak, jarduerak, inbertsioek edo jarduketek Erriberagoitiko Udalaren laguntza ekonomikoa dutela. Udal instantzietan udal logotipoa eskatuko da.

h) Helburu berbererako lortu diren gainerako dirulaguntza guztien berri emango da, horren jatorria publikoa edo pribatua izan arren, eta jasotako zenbatekoa argi adierazi beharko da, betiere. Dirulaguntza, laguntza, diru sarrera edo baliabide horien berri jakin bezain laster jakinarazi beharko zaio, eta, nahitaez, jasotako funtsak nola erabili diren justifikatu baino lehen.

- i) Dirulaguntza ematen duen organoak edo erakunde laguntzaileak egiten dituen egiaztapen jarduketa guztiak onartzea, eta eskatzen diren informazio eta agiri guztiak ematea
- j) Zerga betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak egunean izatea, erregelamenduz ezartzen den bezala.
- k) Dirulaguntza behar bezala justifikatzeko eskatuz gero, merkataritzako legerian ezarritakoaren arabera pertsona juridikoei edo erakunde laguntzaileei galdatu beharreko kontabilitateko liburu eta erregistro bereziak aurkeztea.
- l) Jasotako funtsen erabilera frogatzen duten agiriak gordetzea.
- m) Erriberagoitiko Udalari laguntzea, hala eskatuz gero, diruz lagundutako jarduerari buruzko azterlanak, inkestak edo estatistikak egin ahal izateko.
- n) Jasotako funtsak itzultzea horretara behartzen duten legezko arrazoiak gertatuz gero, eta batez ere erakunde onuraduna desegiten bada edo emandako dirulaguntza, osorik zein zati bat, diruz lagundutako proiektuan edo jarduera gauzatzeko erabiltzen ez bada.
- o) Sexu arrazoiengatiko edo bestelako bazterketarik gerta ez dadin beharrezko neurriak hartzea. Era berean, emakumeen eta gizonen sarbide eta partaidetza orekatua sustatzea, udal eskumenak osatzen edo ordeztan dituzten onura publikoko edo gizarte intereseko ekimen eta jarduera guztietan.

BIGARREN TITULUA. EMATEKO PROZEDURA. ARAU OROKORRAK ETA JUSTIFIKAZIOA

I. kapitulua. Emateko prozedura

9º artikulua. Emateko prozedurak

1. Dirulaguntzak norgehiagokako araubidearen bidez edo zuzenean emango dira.

Erriberagoitiko Udalaren dirulaguntzak emateko ohiko prozedura norgehiagokako araubidearen bidez burutuko da.

II. kapitulua. Norghegiagokako araubidean dirulaguntzak emateko prozedura

10º artikulua. Norghegiagokako araubidean emateko prozedura

Hauxe da norghegiagoka: dirulaguntza jasotzeko aurkezten diren eskaerak alderatzea lehentasun hurrenkeran jartzeko eta gero, deialdian ezarritako muga eta baliagarri dagoen kreditua kontuan edukita, berariaz ezarritako irizpideen arabera punturik gehien lortu dutenei ematea dirulaguntza.

Salbuespenez, berariazko deialdietan hala aurreikusten denean, organo eskudunak dirulaguntzak eman ahal izango ditu, honako bi prozedura hauetako bati jarraituz:

- Dirulaguntzak emateko gehienezko zenbateko osoa hainbanatuta, aurkezteko epea amaitu ondoren, haien arteko lehentasun hurrenkerarik ezarri gabe.
- Dagokion deialdian ezarritako baldintzak betetzen dituzten eskabideei dagozkien dirulaguntzak hurrenez hurren ordainduz, dagokion epea amaitu arte itxaron beharrik gabe, baldin eta aurkeztutako guztiei ezarritako epean aurre egiteko aukera eta aurrekontu aurreikuspena badago.

Dirulaguntzak norghegiagoka bidez emateko prozedura ofizioz hasiko da, organo eskudunak onetsitako deialdi publiko bidez.

Deialdia Dirulaguntzen Estatuko Datu Basean argitaratuko da, eta horren laburpen bat ALHAOn, Erriberagoitiko Udalaren iragarki taulan eta webgunean jasota gera dadin eragotzi gabe.

11º artikulua. Dirulaguntzak norgehiagoka bidez emateko deialdiaren edukia

1. Deialdiak, gutxienez, honako alderdi hauek jasoko ditu:

a) Ordenantza hau oinarri arautzailea dela adieraztea, bai eta ordenantza hau argitaratzen duen aldizkari ofiziala ere.

b) Dirulaguntzaren xedearen eta helburuaren definizioa.

c) Diru laguntza eskatzeko bete beharreko baldintzak eta horiek egiaztatzeko bidea.

d) Dirulaguntzei buruzko Lege Orokorraren 12. artikulua 2. apartatuan aipatzen diren pertsona juridikoek txandaka bete behar dituzten kaudimen eta eraginkortasun baldintzak, hala nola: onuradunaren izaera publikoa, baldintzak egiaztatzen dituen finantza erakunde txostena, kalteordainen edo lanbide arriskuen aseguru dagoela egiaztatzen duen ziurtagiria, ekoizpen edo lanbide jardueren kopuruari buruzko erantzukizunpeko adierazpena edo onuradunak egin-dako obra, zerbitzu, hornidura edo lanei buruzko erantzukizunpeko adierazpena, besteak beste.

e) Dirulaguntzak emateko prozedura.

f) Dirulaguntza emateko irizpide objektiboak eta, beharrezkoa denean, horien haztapena. Helburuek objektiboak izan behar dutela kontuan hartuta, ordenantza honek berariaz igortzen ditu deialdi bakoitzera irizpideak eta horien haztapena, dirulaguntza jardueraren helburuetara hobeto egokitzeko; arau testu honetan, ordea, ezin da hori zehaztu.

g) Deialdiko dirulaguntzak egozten zaizkien aurrekontu kredituak eta dirulaguntza horien gehieneko zenbatekoa, erabilgarri dauden kredituen barruan, edo, halakorik ezean, dirulaguntzen zenbateko zenbatetsia. Salbuespen gisa, eta azaroaren 17ko 38/2003 Legearen Erregelamenduaren 58.2 artikuluko arauak betez, deialdiak, erabilgarri dauden kredituen barruan gehienez eman daitezkeen zenbateko osoaz gain, beste zenbateko gehigarri bat ere ezarri ahal izango du, dirulaguntzak emateari aplikatzeko beste deialdi bat egin beharrik izango ez duena.

h) Dirulaguntza bakoitzaren gehieneko zenbatekoa edo gehieneko hori zehazteko irizpideak.

i) Dirulaguntza emateko prozesura agindu, izapidetu eta ebazteko organo eskudunak, eta hura jakinarazteko epea.

j) Berariaz adieraziko da ebazpenak administrazio bidea amaituko duela, bai eta haren aurka jar daitezkeen errekurtsoak ere.

k) Ebazpena jakinarazteko edo argitaratzeko bideak.

l) Eskabideak aurkezteko ereduak, modua eta epea, eta zein organori zuzendu behar zaizkion. Eskabideekin batera deialdian zehaztutako agiri eta informazioak aurkeztu beharko dira, non eta ez dauden administrazio jarduleko edozein organoren esku.

m) Pertsona onuradunak dirulaguntza onartzea. Uko eginez gero, berariaz eta arrazoituta aurkeztu beharko da ukoa, dirulaguntza eman izanaren jakinarazpena jaso eta ondorengo hamabost egunen buruan gehienez.

n) Pertsona juridikoek edo erakunde laguntzaileek kontabilitateko liburu eta erregistro bereziak eduki beharra, merkataritzako legerian eskatzen den bezala.

o) Pertsona edo erakunde onuradunak edo erakunde laguntzaileak, behar denean, zer epealditan eta nola frogatu behar duen dirulaguntzaren xedea bete duela eta jasotako funtsak erabili dituela.

p) Behar den kasuetan, dirulaguntza ematen duen organoaren alde eratu beharreko bermeak, bermeok eratzeko moduak eta baliogabetzeko prozedura: banku abalak eskudirutan, baloreak, abala edo kauzio aseguruaren kontratua. Abala jartzen bada bermerako, hura eman duen erakundearen ordezkartzaren ahalordearen frogagiria aurkeztu behar da udalaren kutxan (diruzaintza).

q) Ordainketa aurreratuak eta konturako ordainketak egiteko aukera, baita pertsona edo erakunde onuradunek, hala badagokio, jarri beharko dituzten bermeen araubidea ere.

r) Pertsona onuradunak hirugarrenak azpikontratatzeko aukera; baldintza: dirulaguntza jasotzen duen jardueraren kudeaketa mantentzea.

s) Dirulaguntza emateko aintzat hartu diren baldintzen aldaketaren ondorioz ebazpenak izan ditzakeen aldaketak.

t) Bateragarritasuna edo bateraezintasuna xede bererako beste administrazio edo erakunde publiko zein pribatu batzuek (estatukoek, Europar Batasunekoek zein nazioartekoek) emandako dirulaguntza, laguntza, sarrera edo baliabideekin.

u) Dirulaguntza ematean ezarritako baldintzak ez betetzeak mailakatzeko irizpideak. Irizpide horiek aplikatuko dira onuradunak jasoko duen edo itzuli behar duen zenbatekoa zehazteko; proportzionaltasunaren printzipioan oinarritu behar dira.

2. Deialdiak ezarriko ditu, hala badagokio, pertsona eta/edo erakunde interesdunek eskabideak aurkezteko eta dagozkien administrazio-jakinazpenak jasotzeko bitarteko elektronikoak, eta adieraziko du baliabide horiek zein kasutan egingo diren nahitaez.

12º artikulua. Dirulaguntzak norgehiagoka bidez emateko eskabideak aurkeztea

1. Deialdia argitaratu ondoren, dirulaguntza eskatu nahi duten pertsona edo erakunde interesdunek deialdian ezartzen diren bideen bidez aurkeztu ahal izango dute eskabidea, deialdian zehazten diren bitartekoak eta euskarriak erabiliz.

2. Deialdi bakoitzean ezarritakoa izango da eskaerak aurkezteko epea. Eskabideak aipatutako epeetatik kanpo aurkeztuz gero, ezetsi egingo dira, eta artxibatu egingo dira beste izapiderik gabe.

3. Eskaerak deialdian ezarritako baldintzak ez baditu betetzen, eskumeneko organoak errekerimendua egingo dio pertsona edo erakunde interesdunari, luzatu ezin den hamar eguneko epean konpon dezan, eta hala ez badu egiten, bere eskaerari uko egin duela hartuko dela, ebazpena eman aurretik.

4. Pertsona edo erakunde eskatzaile bakoitzak aurkeztu beharreko jardueren edo proiektuen gehieneko kopurua ezarri ahal izango du deialdiak.

5. Dirulaguntzen eskabideekin batera aurkeztu beharreko dokumentazioa deialdi bakoitzean ezarritakoa izango da, eta, gutxienez, honako hau:

a) Eskaera, onetsitako eredu normalizatuan egina, eta dirulaguntza ezarritako xedea, proiektua edo jarduera erabiltzeko konpromisoa.

b) Eskabidea sinatzen duen pertsonaren nortasun agiri nazionala, pasaporte edo atzerri-tarren identifikazio zenbakia, dela bere izenean ari delako, dela elkarte edo erakunde baten ordezkari gisa.

c) Eskabidea elkarte edo erakunde baten izenean egiten denean, elkarte edo erakunde eskatzailearen identifikazio fiskaleko zenbakia eta legez eraturako dagoela egiaztatzen duen agiria.

d) Dirulaguntza eskatutako helburua, proiektua edo jarduera gauzatzeko erabiliko dela ezartzen duen zinpeko aitortpena.

e) Erantzukizunpeko adierazpena edo ziurtagiria, egiaztatzeko ez dagoela desgaituta administrazio publikoekin kontratuak egiteko edo haien dirulaguntzak lortzeko, pertsona fisiko eskatzaileari dagokionez, ez haren kabuz, ez erakundearen legezko ordezkartzan.

f) Udalarekiko, Foru Ogasunarekiko eta Gizarte Segurantzarekiko zerga betebeharrak, bai eta itzulketa bidezko zergekiko eta zuzenbide publikoko gainerako zorrerako betebeharrak, egunean dituela egiaztatzen duen erantzukizunpeko adierazpena edo ziurtagiria. Adierazpen edo ziurtagiri horren orde, Erriberagoitiko Udalari baimena eman ahal izango zaio ziurtagiri horiek emateko eskumena duten organoei eskatzeko. GKE-ek behar den erregistro publikoan erregistratuta daudela frogatu behar dute.

g) Dirulaguntza jasotzeko aukera gehiago edukitzeko mesedegarritzat jotzen diren gainerako agiri guztiak.

6. Deialdian onetsi ahalko da, dokumentu jakin batzuk aurkeztu ordez, aitorten arduratsua aurkeztea. Kasu horretan, instrukzio organoak, dirulaguntza emateko ebazpen proposamena egin aurretik, aitorten horretan jasotako datuak egiazkoak direla egiaztatzen duen dokumentazioa gehienez ere hilabeteko epean aurkezteko galdatu beharko du.

13º artikulua. Dirulaguntzak norgehiagoka bidez emateko proiektuak izapidetzea eta baloratzea

1. Deialdietan balorazio batzordearen osaera zehaztu beharko da. Batzorde hori eskabideak baloratzeko organoa izango da, eta dirulaguntzaren xede den gaian eskumena duen zerbitzuari atxikitako teknikari espezializatuek osatuko dute.

2. Eskabideak aurkezteko epea amaitu ondoren, balorazio batzordeak eskabideak alderatuko ditu, eta, dagokion deialdian ezarritako irizpideen arabera, horien lehentasun txosten arrazoitua egingo du, baztertutako eskabideak eta baztertzeko arrazoiak adierazita.

3. Txosten horretan oinarrituta, ebazpen proposamena egingo da. Proposamen hori eskabideak aurkeztu dituzten pertsona guztiei jakinaraziko zaie, eta hamar egun balioduneko epea emango zaie alegazioak aurkezteko.

4. Alegazioak aurkezteko epea amaituta, balorazio batzordeak beste txosten bat egingo du, aurkeztutako alegazioak arrazoituta ebartzeko ditu eta, beharrezkoa bada, eskabideen hurrenkera berria zehaztuko du.

5. Balorazio batzordearen txostena ikusita, ebazpen proposamena egingo da, eta organo eskudunari helaraziko zaio, ebazpena har dezan. Honakoak agertu behar dira ebazpen horretan:

- Baztertutako pertsonen eta/edo erakundeen zerrenda eta baztertzeko arrazoiak.
- Onartutako pertsona eta/edo erakundeen zerrenda, bai eta horien lehentasun hurrenkera arrazoitua eta zenbatekoa ere, hori guztia dagokion deialdian ezarritako irizpideetan xedatutakoaren arabera.

14º artikulua. Norgehiagoka bidezko dirulaguntzak emateko ebazpena eta jakinarazpena

1. Ebazteko eta jakinarazteko gehieneko epea deialdi bakoitzean ezarritakoa izango da, eta ezingo da sei hilabete baino luzeagoa izan, eskabideak aurkezteko ezarritako epea amaitzen denetik zenbatzen hasita.

2. Gehieneko epea igaro bada eta eta/edo erakunde interesdunei bidezko ebazpenaren berri eman ez bazaie, eskaera administrazio isiltasunez ezetsizat joko da.

3. Ebazpenak arrazoitua izan beharko du, eta honako hauek jaso beharko ditu:

a) Pertsona edo erakunde onuradunak eta emandako dirulaguntzaren zenbatekoa. Nolanahi ere, dirulaguntza ematea arrazoitu egin beharko da, dagokion deialdian ezarritako balorazio irizpideen arabera.

b) Eskabidea ezetsi zaien pertsonak edo erakundeak; nolanahi ere, atzera egite hori arrazoitu egin beharko da.

c) Eskaeran atzera egin duten pertsonak edo erakundeak.

d) Dirulaguntza ematea gerora ezinezkoa gertatutako kasuak.

e) Espedientea izapidetzean sortzen den beste edozein gorabehera, dela interesdunek planteatutakoa, dela espedientetik eratorritakoa.

4. Baldin eta berariaz ezestea deialdian ezarritako kreditua aurkeztutako eskabide guztiei erantzuteko nahikoa ez delako gertatu bada, ebazpenean, halaber, ezarritako baldintza administratibo eta teknikoak betez arrazoi horrengatik ezetsi diren eskabide guztien zerrenda ordenatua jasoko da. Ebazpen horretan berariaz adierazi beharko da zein puntuazio eman zaion horietako bakoitzari, deialdian aurreikusitako balorazio irizpideen arabera.

Kasu horretan, eta deialdiak berariaz aurreikusten badu, pertsona edo erakunde onuradunetako batek uko egiten badio, laguntza ematen duen organoak hurrengo pertsona edo erakunde eskatzaileari dagokion dirulaguntza eman ahal izango du, adierazitako puntuazio ordenaren arabera. Dirulaguntza emateko, beharrezkoa izango da:

- a) Hasieran ezetsitako eskabideetako bati, gutxienez, aurre egiteko adinako kreditua igortzea.
- b) Eragindako pertsona eta/edo erakundeen berariazko baimena, emakida organoak horretarako emandako egun epe luzaezinean.
- c) Dirulaguntza emateko organoaren ebazpena.

5. Dirulaguntza emateko kontuan hartutako baldintzak aldatzen badira, emateko ebazpena ere aldatu beharko da.

6. Dirulaguntza emateko administrazio espedientea ebaztea alkate-lehendakariari edo hark eskuordetzen duen organoari dagokio. Nolanahi ere, ebazpen horrek bide administratiboa azkenduko du.

7. Prozeduraren ebazpena pertsona eta/edo erakunde interesdunei jakinaraziko zaie, Administrazio Prozedura Erkideari buruzko urriaren 1eko 39/2015 Legean xedatutakoaren arabera.

III. kapitulua. Dirulaguntzak zuzenean emateko prozedura

15° artikulua. Zuzenean emateko kasuak

1. Zuzenean eman ahal izango dira indarrean dagoen dirulaguntzen plan estrategikoan halakotzat aurreikusitako eta Erriberagoitiko Udalaren aurrekontu orokorrean izendun gisa aurreikusitako dirulaguntzak, horretarako sinatzen diren hitzarmenetan eta dirulaguntza horiek arautzen dituen araudian aplikagarri den guztian jasotako baldintzetan.

Aurrekoa gorabehera, aurrekontuan aurreikuspen izenduna egiteak eta/edo dagokion dirulaguntza ildo jasotzeak ez dio ematen balizko pertsona edo/eta erakunde onuradunari jasotzeko eskubide subjektiborik, baizik eta gehieneko dirulaguntza lortzeko itxaropen juridiko soila, eta horren zenbatekoa eta baldintzak dagokion erabakia edo ebazpena hartuta zehaztuko dira.

Aurrekontuetan aurreikuspen izenduna egiteko, aurrekontu zuzkidura eta haren onuraduna jaso beharko dira gutxienez. Ahal den guztietan, dirulaguntzaren xedea ere finkatuko da, aurretik zehaztea ezinezkoa den salbuespenezko kasuak egon badaitezke ere. Azken kasu horietan, dirulaguntzaren xedea dagokion espedientea izapidetzean finkatuko da, eta, nolanahi ere, behar bezala zehaztuta geratuko da dirulaguntza emateko ebazpenean eta horretarako sinatzen den hitzarmenean.

2. Era berean, zuzenean eman ahal izango dira lege mailako arau baten bidez toki administrazio honi dirulaguntzak ematea edo horien zenbatekoa ezartzen zaionean, eta dagokion araudiaren arabera aplikatzeko den prozedurari jarraituko zaio.

3. Arestikoez gain, eta salbuespenez, zuzenean eman ahalko dira beste dirulaguntza batzuk, baldin eta herri, gizarte, ekonomia edo giza arazoak edo behar bezala frogatutako arazoak direla eta, deialdi publiko baten bidez emateko zailtasuna frogatzen bada.

16° artikulua. Aurrekontuetan izendun gisa aurreikusitako dirulaguntzak zuzenean emateko hitzarmenen eta erabakien araubidea. Espedientea izapidetzea

1. Dagokion aurrekontu kreditua indarrean jartzen denean, dirulaguntza egozten zaion aurrekontu kreditua kudeatzen duen zerbitzuak hasiko du ofizioz, eskuarki, aurrekontuetan izendun gisa aurreikusitako dirulaguntzak emateko prozedura. Dirulaguntzaren xedearen edo onuradunaren espezifikotasunagatik espedientean behar bezala justifikatutako salbuespenezko kasuetan bakarrik eskatuko da prozedura alderdi batek eskatuta hastea.

2. Aurreko paragrafoan aurreikusitako ondorioetarako, gaiaren arabera eskumena duen zerbitzuak hitzarmen arautzailea egingo du, dagokion txostena egin ondoren. Dokumentazio hori, zinegotziaren proposamenarekin batera, idazkaritza nagusira eta udalaren kontu hartzailetzara bidaliko da, txostena egin dezan. Kasuan kasuko txostenak egin ondoren, organo eskudunak dirulaguntza emateko ebazpena emango du, gerora alde biek hitzarmen arautzailea nahitaez sinatzeaz eragotzi gabe.

Dirulaguntza emateko ebazpena eta jakinarazpena dagokion kreditua indarrean jarri eta gehienez ere hiru hilabeteko epean egin beharko dira.

3. Salbuespenezko kasuetan, dirulaguntzaren xedearen edo onuradunaren espezifikotasuna dela eta prozedura alderdi batek eskatuta hasi behar bada, gaiaren arabera eskumena duen zerbitzuak dagokion partidan izendun aurreikusitako onuradunari jakinarazi beharko dio dirulaguntza indarrean jarriko dela, bai eta dirulaguntza izapidetzeko aurkeztu behar duen dokumentazioa ere.

Galdatutako dokumentazioa aurkeztuta gaiaren arabera eskumena duen zerbitzuak hitzarmen arautzailea egingo du, dagokion txostena egin ondoren. Dokumentazio hori, zinegotziaren proposamenarekin batera, idazkaritza nagusira eta udalaren kontu hartzailetzara bidaliko da, txostena egin dezan.

Kasuan kasuko txostenak egin ondoren, gaiaren arabera dagokion osoko bilkurako gaiei buruzko informazio batzordeari aurkeztuko zaio proposamena, irizpena eman dezan. Ondoren, hala badagokio, alkate-lehendakariak edo hark eskuordetzen duen organoak dirulaguntza emateko ebazpena emango du. Nolanahi ere, ondoren bi aldeek nahitaez sinatu beharko dute hitzarmen arautzailea.

Dirulaguntza emateko ebazpena eta jakinarazpena gehienez ere hiru hilabeteko epean egin beharko dira, erakunde onuradunari eskatutako dokumentazioa udaleko sarrera erregistroan aurkezten denetik zenbatzen hasita.

4. Dirulaguntza emateko ebazpenak eta aurrekontuetan aurreikusitako zuzeneko dirulaguntzak bideratzeko hitzarmenek ezarriko dituzte baldintza eta konpromiso aplikagarri guztiak, ordenantza honetan eta dirulaguntzei buruzko araudian xedatutakoaren arabera.

5. Nolanahi ere, hitzarmenak ohiko eta funtsezko tresna izango dira dirulaguntzen plan estrategikoan eta Erriberagoitiko Udalaren aurrekontuan aurreikusitako zuzeneko dirulaguntzak bideratzeko.

6. Dirulaguntza emateko erabakia ordenantza honetan ezarritakoari lotu behar zaio, publikitatearen eta lehiaren printzipioen aplikazioa alde batera utzita; erabakian ondokoak zehaztu behar dira gutxienez:

- Dirulaguntzaren xedearen definizioa.
- Aplikatu beharreko araubide juridikoa.
- Dirulaguntzaren xede diren jarduketan xehetasunak.
- Onuradunak eta laguntzaren modalitateak.
- Dirulaguntzak emateko prozedura, eta pertsona edo erakunde onuradunek jasotako dirulaguntzei emandako erabileraren justifikazioaren araubidea.
- Hitzarmen arautzailea berariaz onestea, dirulaguntza bideratzeko tresna gisa.
- Erriberagoitiko Udalak interesgarritzat jotzen duen beste edozein gai.

7. Dirulaguntza arautzen duen hitzarmenak, bestalde, honako eduki hau jaso beharko du gutxienez:

- Dirulaguntzaren xedea eta pertsona eta/edo erakunde onuradunaren zehaztapena.
- Dirulaguntza emateko aurrekontu partida.
- Xede bererako beste administrazio edo erakunde publiko nahiz pribatu batzuek emandako dirulaguntza, laguntza, sarrera edo baliabideekin bateragarritasuna edo bateraezintasuna.
- Dirulaguntza noiz eta nola ordainduko den, ordainketa aurreratuak eta konturako ordainketak egin daitezkeen, eta, behar denean, onuradunek aurkeztu beharreko bermeen araubidea.
- Onuradunak noiz eta nola frogatu behar duen dirulaguntza ezarritako xederako erabili duela eta jasotako funtsak behar bezala gastatu dituela.

8. Administrazio prozedurari buruzko legerian ezarritako subjektuek bitarteko elektronikoen bidez harremanak izateko duten betebeharrari kalterik egin gabe, hitzarmen arautzaileak bete-behar hori ezarri ahal izango die hasieran prozeduran sartuta ez zeuden kolektiboek, edo, hala badagokio, sartu direnei salbuetsi ahal izango die, espedientean jasotako inguruabarretan oinarrituta, eta espedientean bertan arrazoituta justifikatu beharko dira.

IV. kapitulua. Erriberagoitik Udalak emandako dirulaguntzen xedapen komunak

17º artikulua. Dirulaguntzaren zenbatekoa

1. Udalak urtero erabiliko ditu dirulaguntzak emateko aurrekontu partidak, eta haiek eman ahal izateko, dirulaguntza emateko ebazpena ematen den unean kreditu egokia eta nahikoa egon beharko da.

2. Dirulaguntzaren zenbatekoak ezin izango du inolaz ere dena delako jarduerarentzat ezarritako aurrekontuaren guztizko kopurua gainditu.

3. Dirulaguntzak beste edozein dirulaguntzarekin bateragarriak badira, alegia, erakunde pribatuek edo publikoek helburu berberarekin emandako dirulaguntzekin, ezin izango du gehiegizko finantziazorik egon, hau da, dirulaguntzaren zenbateko osoak (beste erakunde batzuek emandako dirulaguntzak aintzat hartuta) ez du inoiz ere jardueraren kostu osoa gaindituko.

Gainfinantzaketak gertatuz gero, pertsona edo erakunde onuradunak Erriberagoitik Udalak emandako zenbatekoa itzuli beharko du, finantzatutako zenbateko osoarekin alderatuta udalak diruz lagundutako zenbatekoaren proportzioan.

18º artikulua. Diruz lagundutako jarduerak azpikontratatzea

1. Diruz lagundutako jarduera egitea onuradunaren betebeharrak pertsonala da. Aurrekoarekin bat etorritik, dagokion deialdian (lehia askeko dirulaguntzak) edo akordioan eta/edo hitzarmenean (zuzeneko dirulaguntzak) berariaz aurreikusitako kasuetan eta ehunekoetan soilik azpikontratatu ahal izango dira. Ez bada ehunekorik zehaztu, pertsona onuradunak diruz lagundutako jardueraren zenbatekoaren 100eko 50 azpikontratatu ahal izango du, gehienez.

2. Dirulaguntza jasotzen duen jardueraren kostua gehitu arren haren edukiari balioa eransten ez dioten jarduerak ezin izango dira azpikontratatu.

3. Kontratatzen onuradunarekikoak baino ez dituzte bete beharko; onuradunak diruz lagundutako jarduera burutzeko erantzukizun osoa bereganatuko du Administrazioaren aurrean.

Nolanahi ere, onuradunei dagokie dirulaguntza jasoko duen jarduera gauzatzeko hirugarrenekin zerbait adostuz gero, dirulaguntzak arautzen dituen araudiak ezarritako mugak errespetatzea ziurtatzea, diruz laguntzeko modukoak diren gastuen zenbatekoari eta izae-rari dagokienez; kontratatzen lankidetzara betebeharra bete behar dute, muga horiek benetan errespetatzen dituzten ala ez behar bezala egiaztatze aukera emateko.

4. Hirugarrenekin kontratatutako jardueraren zenbatekoa dirulaguntzaren zenbatekoaren 100eko 20tik gorakoa bada eta zenbateko hori 60.000 euro baino gehiago bada, azpikontratazioak hauek beharko ditu:

a) Erriberagoitiko Udaleko organo eskudunaren aurretiazko baimena, Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren 29. artikuluan xedatutakoari lotuko zaiona.

b) Kontratua idatziz formalizatzea.

Ezin izango da kontratua zatikatu aurreko betekizunetatik ihes egiteko.

5. Pertsona onuradunak inola ere ezingo du hitzartu diruz lagundutako jarduera osoa edo zati bat honako hauekin:

a) Dirulaguntzei buruzko legerian ezarritako debekuen eraginpean dauden pertsona edo erakundeekin.

b) Kontratazioaren xede den jarduera egiteko beste dirulaguntza batzuk jaso dituzten pertsona edo erakundeekin.

c) Onuradunari lotutako pertsona edo erakundeekin, dirulaguntzei buruzko legeriak horretarako ezarritako araudiaren arabera.

d) Deialdi eta programa berean laguntzak edo dirulaguntza eskatzen duten pertsona edo erakundeekin, baldintzak ez betetzeagatik edo balorazio nahikoa ez lortzeagatik dirulaguntza jaso ez badute.

19º artikulua. Diruz lagundu daitezkeen gastuak

1. Dirulaguntza jaso dezaketen gastuak dira inolako zalantzarik gabe dirulaguntza jaso duen jarduerarekin bat datozenak, baldin eta dirulaguntzaren deialdietan eta/edo ebazpen eta hitzarmen arautzaileetan ezarritako epealdian egiten badira.

2. Lehentasunez, eta behar bezala justifikatu ezean, ez dira diruz lagundu daitezkeen gastutzat hartuko inolako isunak eta errekarquak, edari alkoholduak, tabakoa eta antzekoak erostea, ezta diruz lagundutako jardueraren helburuetarako ezinbestekoak ez diren gastuak ere, emandako dirulaguntza arautzen duten deialdi eta/edo ebazpen eta hitzarmen bakoitzean ezartzen denari kalterik egin gabe.

3. Diruz lagundu daitezkeen gastuaren zenbatekoak administrazio kontratazioari buruzko legeriaren arabera kontratu txikiei dagozkien zenbatekoak gaingiditzen dituenean, pertsona edo erakunde onuradunak hornitzaile desberdinen hiru eskaintza eskatu beharko ditu, gutxienez, konpromisoa kontratatu aurretik, salbu eta merkatuan ez badago konpromisoa ematen edo hornitzen duen erakunde nahikorik.

4. Dirulaguntza jaso dezaketen gastuak dira proiektua burutzeko egiten diren finantza gastuak, aholkularitza juridiko edo finantzarioak eragiten dituen gastuak, notariotzako eta erregistroko gastuak, perituen gastuak, eta proiektuarekin zuzenean lotutako administrazioeko gastu bereziak emandako dirulaguntzaren deialdietan eta/edo ebazpen eta hitzarmen arautzaileetan ezarritako gero.

5. Aldiz, ondoko gastu hauek ezin dute dirulaguntzarik jaso:

a) Bankuko kontuen korritu zordunek.

b) Interesak, errekarquak eta administrazio-zehapenak nahiz zehapen penalak.

c) Prozedura judizialen gastuak.

6. Zergak dirulaguntza jaso dezaketen gastutzat hartuko dira erakunde edo pertsona onuradunak ordaintzen baditu. Ez dira, inola ere, diruz laguntzeko moduko gastutzat hartuko berreskuratu edo konpentsatu daitezkeen zeharkako zergak, ez eta errentaren gaineko zerga pertsonalak ere.

7. Emandako dirulaguntza arautzen duten deialdiek eta/edo ebazpenak eta hitzarmenak zeharkako kostuak ezarri ahal izango dituzte diruz laguntzeko moduko gastutzat, jardueraren garapenari lotuta daudelako. Egotzitako zatikiak ezin izango du ezarritako kopurua gainditu, eta kasu horretan ez du justifikazio gehigarririk beharko.

8. Dirulaguntza jaso dezaketen gastuen eskuraketa balioa ezin da inola ere izan merkatuko balioa baino handiagoa.

20º artikulua. Dirulaguntza ordaintzea

1. Dirulaguntza honela ordaindu ahalko da:

a) Pertsona edo erakunde onuradunak frogatu egin beharko du dirulaguntzaren xede den jarduera edo proiektua egin, helburua lortu edo jokabidea hartu duela ordenantza honetan ezarritako moduan. Dirulaguntza jasotzailearengan egoera jakin bat egoteagatik ematen den kasuetan, araudi erregulatzailerak ezartzen dituen bitartekoen arabera egiaztatzea beste justifikaziorik ez da eskatuko.

b) Ordainketa aurreratutako egin ahal izango dira, baita aurreikusitako zenbatekoaren ehuneko 100eraino ere, justifikazioa egin aurretik, baldin eta, dirulaguntzaren izaera edo helburuen arabera, funtsak ematea eskatzen bada, hari atxikitako jarduerak gauzatu ahal izateko beharrezko finantzaketa gisa.

2. Aurreratutako ordainketen prozedura, baldintzak eta gehieneko ehunekoa, bai eta, hala badagokio, bermeak eskatzea bidezkoa den ere, emandako dirulaguntza arautzen duen deialdian eta/edo ebazpenean eta hitzarmenean zehaztuko dira.

3. Ezin izango zaie ordainketa aurreraturik egin pertsona edo erakunde onuradunei, baldin eta borondatezko konkurtsoa deklaratzeko eskatu badute, edozein prozeduratan kaudimengabetzat jo badituzte, konkurtsoan deklaraturik badaude, konkurtsoan hitzarmen batek eraginkortasuna hartu ez badu, esku hartze judizialaren mende ez badaude edo Konkurtsoari buruzko uztailaren 9ko 22/2003 Legearen arabera desgaituta ez badaude konkurtsoa kalifikatzeko epaian ezarritako desgaitutza aldia amaitu gabe.

4. Nolanahi ere, ezin izango da dirulaguntzaren ordainketa egin pertsona edo erakunde onuradunak zerga betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak egunean ez baditu, itzultzeko ebazpen bidez zordun bada edo justifikazio epea amaituta duen dirulaguntzaren bat justifikatzeke badu.

21º artikulua. Emandako dirulaguntzen publizitatea

1. Dirulaguntza ematen duen administrazio organoak haren berri argitaratuko du Dirulaguntzen Datu-base Nazionalean. Iragarkian datu hauek zehaztu beharko dira: deialdia, dirulaguntza ordaintzeko erabiliko den aurrekontuko programa eta kreditua, pertsona edo erakunde onuraduna, dirulaguntzen zenbatekoa eta helburuak. Iragarki hori hiruhileko natural bakoitzaren hurrengo hilabetean egingo da, eta aldi horretan emandako guztiak sartuko dira.

Kasu hauetan ez da iragarkirik argitaratu beharko:

a) Dirulaguntza publikoa Erriberagoitiko Udalaren aurrekontuko dirulaguntza izenduna denean.

b) Dirulaguntza eman beharra eta haren zenbatekoa legez ezarrita daudenean.

c) Emandako dirulaguntzen zenbatekoak, banaka hartuta, 3.000 eurotik beherakoak direnean, nahiz eta pertsona edo erakunde onuradunen publizitatea ziurtatzeko Erriberagoitiko Udalaren iragarki taulan eta web orrian argitaratuko den; hala badagokio, dagokion argitalpena egingo da udalaren erabilerako sare sozialetan eta hedapenerako udal aldizkarian.

d) Dirulaguntza pertsona edo erakunde onuradunen datuak argitaratzeak haien ohorea, intimitate pertsonala eta familiarra urratzen dituenean.

2. Dagokion deialdiak finkatuko du, hala badagokio, dirulaguntzaren onuradunak zer hedapen neurri hartu behar duen dirulaguntzaren xede den edozein motatako programa, jarduera, inbertsio edo jarduketaren finantzaketaren izaera publikoari publizitate egokia emateko.

Hedapen neurri horiek diruz lagundutako xedera egokitu beharko dira, bai formari bai iraupenari dagokienez, eta diru-laguntza ematen duen erakundearen irudi instituzionala eta finantzaketa publikoari buruzko legendak karteletan, oroimenezko plaketan, material inprimatuetan, bitarteko elektronikoetan edo ikus-entzunezkoetan edo komunikabideetan egindako aipamenetan sartu ahal izango dira.

Programak, jarduerak, inbertsioak edo jardunak beste finantzaketa iturri batzuk dituenetan eta onuradunak horren berri eman behar duenean, emandako dirulaguntzaren hedabideek eta horien garrantziak beste finantzaketa iturriekin alderatuta erabilien antzekoak izan beharko dute.

Betebehar hori bete ez bada, eta zehapen araubidea aplikatzearen ondorioz izan litezkeen erantzukizunak alde batera utzi gabe, honako arau hauek aplikatuko dira:

a) Ezarritako baldintzetan betetzea posible bada, organo emaileak ezarritako hedapen neurriak 15 eguneko epean har ditzala eskatu beharko dio onuradunari, eta berariaz ohartarazi beharko dio ez-betetze horrek zer ondorio ekar ditzakeen dirua itzultzeko betebeharretik.

b) Neurri horiek eragindako jarduerak dagoeneko garatu izanagatik, jarduera horiek ezarritako baldintzetan betetzea ezinezkoa bada, laguntza ematen duen organoak ordezkotako neurriak ezarri ahal izango ditu, baldin eta neurri horiek aukera ematen badute jasotako finantzaketa publikoaren berri hasieran erabakitakoen irismen berarekin emateko.

3. Aurreko apartatueta araututako publizitatea egingo da dirulaguntzen onuradunei egitea dagokiena alde batera utzita, gardentasunari eta indarrean dagoen informazioaren eskuragarritasunari buruzko araudian ezarritako publizitate aktiboko betebeharren arabera.

V. kapitulua. Dirulaguntzen justifikazioa. Itzulketa

22º artikulua. Dirulaguntzaren justifikazioa. Erriberagoitiko Udalak emandako 60.000,00 eurotik beherako dirulaguntzak

1. Pertsona edo erakunde onuradunak dirulaguntza emateko egintzan ezarritako baldintzak bete izanaren eta aurreikusitako helburuak lortu izanaren justifikazioa aurkeztu beharko du.

2. 60.000,00 eurotik beherako dirulaguntzen kasuan, justifikazio kontu sinplifikatua izango da dirulaguntza justifikatzeko balio juridikoa duen agiria, eta eduki hau izango du:

a) Proiektu edo jarduera osoa nola gauzatu den xehe-xehe azaltzen duen memoria aurkeztu behar da; memorian ondokoak bildu behar dira: programa, iragarpen kartela, argazkiak eta proiekturako edo jarduerarako prestatutako gainerako agiri grafikoak.

b) Jardueraren gastu eta inbertsioen zerrenda sailkatua, hartzekoduna eta agiria identifikatuz, bai eta zenbatekoa, jaulkipen eguna eta, hala balegokio, ordainketa eguna ere. Dirulaguntza zenbatesitako aurrekontu baten arabera eman bada, egondako desbideratzeak adierazi beharko dira.

c) Diruz lagundutako jarduera finantzatu duten beste diru sarrera edo dirulaguntza batzuen xehetasuna, zenbatekoa eta nork emana den zehaztuz.

Dirulaguntzaren xedea edo izaera dela eta ez bada beharrezkotzat jotzen aurreko dokumentazio guztia eskatzea, aipatutako dokumentuetako batzuk bateratu edo ezabatu ahal izango dira, eta dagokion ebazpenean zehaztuko da justifikatzeko behar den eduki zehatza.

3. Onuradun guztiek justifikazio kontu sinplifikatua aurkeztu ondoren, dagokion zerbitzuak aztertuko du, eta hamar egun balioduneko epea emango du aurkeztu ez den dokumentazioa zuzentzeko.

4. Nolanahi ere, dokumentazio gehigarria eskatuko da honako kasu hauetan:

a) Norgehiagoka prozeduraren bidezko deialdi bakoitzaren onuradunei, ehuneko 25 arte. Dokumentazio hori aurkeztu behar duten pertsonak ausaz aukeratuko ditu balorazio batzordeak onuradun guztien artetik; hala ere, batzorde horrek, modu arrazoituan, dokumentazio hori edo dokumentazioaren zati bat onuradun jakin batzuei eskatu behar zaiela erabaki dezake.

b) Zuzenean emandako dirulaguntzen onuradun guztiei.

5. Aurreko paragrafoan adierazitako ondorioetarako, dokumentazio osagarritzat hartuko dira ebazpenetan egokitzen diren egiaztagiriak, dirulaguntza behar bezala aplikatu dela egiaztatzeko arrazoizko ebidentzia ematen dutenak.

Adibide gisa, honako dokumentazio hau aurkezteko eska dezake:

a) Fakturak eta frogabide baliokidea duten agiriak merkataritza trafiko juridikoan baliagarriak direnak edo eraginkortasun administratiboa dutenak, barnean hartzen dituen gastu guztiak banakatuta.

Fakturak eta froga balioudun bestelako agiriak dirulaguntza eman den ekitaldi ekonomikokoak izan behar dira, dirulaguntza bi urterako ematen denean izan ezik.

b) Ordainagiria, ordainketaren data jasotzen duena.

c) Emandako dirulaguntza eta haren xedea justifikatzeko beharrezkotzat jotzen den beste edozein agiri, behar bezala arrazoituta.

Dokumentazio gehigarri horrekin batera, onuradunak sinatutako egiazkotasunari buruzko erantzukizunpeko adierazpen bat aurkeztu beharko da, organo eskudunak geroko egiaztatze ahalmenak baliatzea eragotzi gabe.

6. Aurkeztutako dokumentazioa aztertu ondoren, prozedurak izapide hauek bete beharko ditu:

a) Norgehiagokan emandako dirulaguntzen kasuan, balorazio batzordeari dagokio aurkeztutako justifikazioaren aldeko edo kontrako txostena egitea.

b) Zuzenean emandako dirulaguntzen kasuan, zerbitzu kudeatzaileko teknikariei dagokie aurkeztutako justifikazioaren aldeko edo kontrako txostena egitea.

7. Aurkeztutako justifikazioari buruzko txostena aldekoa bada, dagokion dokumentazioarekin eta zinegotziaren proposamenarekin batera, udalaren kontu hartzailetzari aurkeztuko zaio, ondoren fiskalizatu, dagokion txostena egin eta ebazpena eman dezan.

Aurkeztutako justifikazioari buruzko txostena aurkakoa bada, dirulaguntza itzultzeko ezarritako prozedurari jarraituko zaio.

Nolanahi ere, udalaren kontu hartzailetzak egoki irizitako dokumentazio gehigarri guztia eskatu ahal izango du, modu arrazoituan, fiskalizazio txostena egiteko.

8. Norgehiagoka bidez emandako dirulaguntzen kasuan, justifikaziorako gehieneko epea dagokion deialdian ezartzen dena izango da, eta inola ere ezin izango du gainditu deialdi hori eman den urtearen hurrengo urteko martxoaren 31.

Zuzenean emandako dirulaguntzen kasuan, justifikaziorako gehieneko epea 3 hilabetekoa izango da, diruz lagundutako jarduera amaitzen denetik zenbatzen hasita. Hainbat jarduera, ekitaldi edo egintza diruz laguntzen badira, justifikazioa behin bakarrik egingo da, eta finantzatutako azken jarduera amaitu ondoren hasiko da zenbatzen epea.

23º artikulua. Dirulaguntzaren justifikazioa. Erriberagoitiko Udalak emandako 60.000,00 eu rotik gorako dirulaguntzak

1. Pertsona edo erakunde onuradunak dirulaguntza emateko egintzan ezarritako baldintzak bete izanaren eta aurreikusitako helburuak lortu izanaren justifikazioa aurkeztu beharko du.

2. 60.000,00 eurotik gorako dirulaguntzen kasuan, onuradunak honako modalitate hauetako bat aurkeztu ahal izango du ezarritako baldintzak betetzen dituela eta aurreikusitako helburuak ematen dituela justifikatzeko:

- a) Justifikazio kontua deritzona, ordainagiriak aurkeztuz.
- b) Kontabilitateko egoera-orriak aurkeztea.

Norgehiagoka bidez emandako dirulaguntzen kasuan, deialdiari dagokio, edo, zuzenean emandako dirulaguntzaren kasuan, emateko eta hitzartzeko erabakiari, kasu bakoitzeko inguruabarrei ondoen egokitzen zaion justifikazio sistema zehaztea.

3. Ordainagiriak aurkeztu behar diren kasuan, justifikazio kontuak honako agiri hauek izango ditu:

A) Dirulaguntza emateko ezarritako baldintzak betetzen direla justifikatzen duen jarduketa memoria, egindako jarduerak eta lortutako emaitzak adierazita (diruz lagundutako proiektua edo jarduera garatzean edo garatzeko egindako programa, iragarki kartela, argazkiak eta gainerako dokumentazio grafikoa barne).

B) Jardueren kostua frogatzen duen memoria ekonomikoa; hauek eduki behar ditu:

a) Jarduerak eragindako gastuak eta inbertsioak sailkatuta ageri diren zerrenda, datu hauekin: hartzekodunaren eta agiriaren identifikazioa, zenbatekoa, agiria noiz eman den eta, hala badagokio, ordainketa eguna. Dirulaguntza aurrekontu baten arabera eman bada, egondako desbideratzeak adierazi beharko dira.

b) Fakturak edo merkataritzako trafiko juridikoan froga-balio baliokidea duten agiriak edo eraginkortasun administratiboa dutenak, aurreko lerrokadan aipatutako zerrendan jasota daudenak, eta, hala badagokio, ordainketa egiaztatzen duten agiriak.

c) Erregistro ofizialean behar bezala inskribaturiko eta egiaztaturiko tasatzaile independenteen ziurtagiria ondasun higiezinak direnean. Zerrendan sartutako kostu orokorrak edota zeharkakoak banatzeko irizpideen adierazpena, hala badagokio, a) letran aipatutakoari jarraiki, salbu eta dirulaguntzaren oinarri arautzaileetan oroharreko konpentsazioa aurreikusi bada, justifikatzeko beharizanik gabe.

d) Diruz lagundutako jarduera finantzatu duten bestelako diru sarrera edo dirulaguntzen zerrenda zehatza. Zenbatekoa eta jatorria adieraziko dira.

e) 3,4. Dirulaguntzen Lege Orokorraren 31.3 artikulua aplikatzea dela eta, onuradunak eskatutako hiru aurrekontuak.

f) Erabili gabeko soberakinik badago, diru kopuru hori eta sortu dituen korrituak itzultzeko ordainketa-gutuna.

Arestikoa gorabehera, dirulaguntzaren xedea edo izaera dela eta, aurreko apartatuan aurreikusitako dokumentazioa aurkeztu behar ez denean, deialdiari dagokio, norgehiagoka bidez emandako dirulaguntzen kasuan, edo, zuzenean emandako dirulaguntza emateko erabakiari eta hitzarmenari, haren edukia zehaztea.

4. Deialdiak, norgehiagoka bidez emandako dirulaguntzen kasuan, edo emateko erabakiak eta hitzarmenak, zuzenean emandako dirulaguntzaren kasuan, Dirulaguntzei buruzko Legearen Erregelamendua onesten duen uztailaren 21eko 887/2006 Errege Dekretuaren 80. artikulua erabakiari kalterik egin gabe, dirulaguntza kontabilitate egoerak aurkeztuz justifikatu ahal izango dela xedatu ahalko dute, honako kasu hauetan:

a) Dirulaguntzaren zenbatekoa zehazteko behar den informazioa zuzenean ondoriozta badaiteke onuradunak nahitaez prestatu beharreko kontabilitate informazioan sartutako finantza egoeretatik.

b) Kontabilitate informazio hori onuradunari dagokion ordenamendu juridikoan aurreikusitako sistemaren arabera ikuskatu bada.

5. Aurkeztutako dokumentazioa aztertu ondoren, prozedurak izapide hauek bete beharko ditu:

a) Norgehiagokan emandako dirulaguntzen kasuan, balorazio batzordeari dagokio aurkeztutako justifikazioaren aldeko edo kontrako txostena egitea.

b) Zuzenean emandako dirulaguntzen kasuan, zerbitzu kudeatzaileko teknikariei dagokie aurkeztutako justifikazioaren aldeko edo kontrako txostena egitea.

6. Aurkeztutako justifikazioari buruzko txostena aldekoa bada, dagokion dokumentazioarekin eta zinegotziaren proposamenarekin batera, udalaren kontu hartzailetzari aurkeztuko zaio, ondoren fiskalizatu, dagokion txostena egin eta ebazpena eman dezan.

Aurkeztutako justifikazioari buruzko txostena aurkakoa bada, dirulaguntza itzultzeko ezarritako prozedurari jarraituko zaio.

Nolanahi ere, udalaren kontu hartzailetzak egoki irizitako dokumentazio gehigarri guztia eskatu ahal izango du, modu arrazoituan, fiskalizazio txostena egiteko.

7. Norgehiagoka bidez emandako dirulaguntzen kasuan, justifikaziorako gehieneko epea dagokion deialdian ezartzen dena izango da, eta inola ere ezin izango du gainditu deialdi hori eman den urtearen hurrengo urteko martxoaren 31.

Zuzenean emandako dirulaguntzen kasuan, justifikaziorako gehieneko epea 3 hilabetekoa izango da, diruz lagundutako jarduera amaitzen denetik zenbatzen hasita. Hainbat jarduera, ekitaldi edo egintza diruz laguntzen badira, justifikazioa behin bakarrik egingo da, eta finantzatutako azken jarduera amaitu ondoren hasiko da zenbatzen epea.

24° artikulua. Dirulaguntza itzultzea

1. Honako kasu hauetan itzuli beharko da jasotako dirulaguntza eta gainera berandutze interesak ordaindu beharko dira, hain zuzen ere dirulaguntza ordaindu denetik dirua itzuli beharra ezarri arte sortutakoak, Dirulaguntzei buruzko Lege 38/ 2003, Orokorrak bere 36. artikuluan eta hurrengoetan xedatutako kasuetan eta baldintzekin.

2. Dirulaguntzak itzultzeko prozedura Administrazio Prozedura Erkideari buruzko urriaren 1eko 39/2015 Legearen IV. tituluari jasotako administrazio prozedurei buruzko xedapen orokorren arabera arautuko da, Dirulaguntzei buruzko 38/2003 Lege Orokorrean eta Dirulaguntzei buruzko 38/2003 Lege Orokorraren Erregelamenduan ezarritako berezitasunei kalterik egin gabe.

3. Pertsona edo erakunde onuradunaren betetze maila erabat betetzera nabarmen hurbiltzen bada, eta egiaztatzen bada bere konpromisoak betetzera bideratutako jarduera bat egin duela zalantzarik gabe, itzuli beharreko zenbatekoa dirulaguntzaren xede den jardueraren betetze kopuruaren edo mailaren araberakoa izango da, proportzionaltasun printzipioa errespetatuz.

HIRUGARREN TITULUA. ZEHAPEN PROZEDURA

25° artikulua. Arau hausteak eta zehapenak

1. Hitzarmen honi aplikatuko zaion arau hausteen eta zehapenen araubidea Dirulaguntzei buruzko 38/ 2003 Lege Orokorraren IV. tituluari eta hura garatzeko erregelamenduan ezarritakoa da

2. Dirulaguntzen arloko zehapenak administrazio espediente bidez ezarriko dira. Espediente horretan, nolanahi ere, entzunaldia emango zaio pertsona edo erakunde interesdunari dagokion erabakia hartu aurretik, eta zehapen prozedurari buruzko administrazio legerian xedatutakoaren arabera izapidetuko da.

3. Aurreko puntuan aipatzen den zehapen espediente administratiboa zehatzeko ahalaren erabilera arautzen duen estatuko araudiak araututakoa izango da, Dirulaguntzei buruzko 38/2003 Lege Orokorrean eta Dirulaguntzei buruzko 38/2003 Lege Orokorraren Erregelamenduan jasotako berezitasunekin.

4. Nolanahi ere, alkate-lehendakariari dagokio zehapenak ezartzeko eskumena, hargatik hura eskuordetzea eragotzi gabe, egoki iritzi gero.

XEDAPEN GEHIGARRIAK

Lehenengoa. Dirulaguntza bat emateak ez dakar berekin inolako kontratu harremanik, ez zibilik, ez merkataritzakorik, ez lanekorik, ez administraziokorik, Erriberagoitiko Udalaren eta dirulaguntzaren onura jasotzen duen pertsona fisikoaren edo erakundearen artean.

Bigarrena Udal ordenantza orokor honetan ezarri ez den guztiari dagokionez Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorrean, lege hau garatu duen araudian eta toki araubideko araudian xedatutakoa aplikatuko dira.

Hirugarrena. Zerbitzu interesdunak eskatuta, alde zuzenetik txosten juridiko eta/edo teknikoak eginda, eta Ekonomia eta Zerga Kudeaketako Zerbitzuko zinegotzi ordezkariak proposatuta, dirulaguntza emateko eskumena duen organoak dirulaguntzak arautzen dituen udal ordenantza honen araudia interpretatuko du, bai eta hura aplikatzeak sor ditzakeen zalantzak ebatzi ere.

AZKEN XEDAPENA. INDARREAN JARTZEA

Udal ordenantza orokor hau, Udalbatzaren osoko bilkurak behin betiko onetsitakoan, Toki Araubideko Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 70.2 artikuluan ezarritakoarekin bat etorritik, oso-osorik argitaratuko da ALHAOn, eta han argitaratzen den egunaren biharamunetik hamabost (15) egun baliiodun pasatutakoan indarrean jarriko da, aurreko lege bereko 65.2 artikuluan ezarri den bezala.

Guztiek jakin dezaten argitaratzen da.

Pobes, 2022ko irailaren 2a

Alkate-lehendakaria

JAVIER GALLEGO RODRÍGUEZ